



MAIALEN ELIZBURU

Egunero da aratuste

Bukatu dira aurtengo aratusteak. Koloredun margoak datorren urterako ondo bildu eta betiko lekuan gorde, urteroko erritua errepikatuz. Aratusteetako mozorroak erantztearekin batera egunero mozorroak jantzi ditugu.

Zer gara ba mozorro ibiltariak baino? Ez al dituzu egunean hamaika pertsonai antzezten eta beste hamaika sortzen? Zenbat kolore ikutu ematen dizkiozu zure desioei? Zenbat luma jantzi zure amorruari? Zenbat purpurina maitasunari? Eta beldurrei? Zenbat antifaz eranstean dizkiozu zure beldurrei? Ba... agian... gehiegitxo. Eta ez da zaila asmatzen giza memelokeria unibertsala baita. Zer da ba mundua zirko erraldoi bat baino?

Badaude pailazo jantzi dotoreak soinean daramazkitenak, begi koloretsu eta irrifarre jostariak oparitzen dituztenak, bi pausotatik bitan hankalatraba jausen badira ere. Edo domatzaileak, traje estu estuekin, gorbatak eztarrian itsatsita dituztela, ia odolaren jarjaria moztaraino eta latigoa ondo helduta inork

lapur ez diezaien. Badira malabarista iaioak, pelotak eskuan hartu eta sekulako saioak egiten dituztenak bat bera ere lurrera ez erortzearen, beraien ekinean kontzentratuta. Eta bada ekilibristarik, zintzilikatutako soka baten gainean oinen azpian dagoen amildegari jaramomik egin gabe pauso zurrak emanaz aurrera egiten dutenak.

Bakoitzak ahal duen gisara interpretatzen du bere pertsonaia baina saiaturare ez da erraza norbere mozorroa aldatzea edo erantztea. Konturatzen ez garen arren, bizi osoa daramagulako gauza bera egiten. Mozorroa erantzita, biluzik, babesgabe gaudelako. Eta egia da bizitza hontarako mozorroak behar ditugula, era guztietakoak, norberak mimoso landutakoak. Baina zaila izaten da hauekin eroso sentitzea momentuoro, batzutan handi bestetan txiki izaten direlako. Beti ezin izan neurri neurrikoa bestela aspertu egingo ginateteke eta aldatzeko beharrik ere ez genuke izango eta jakina da ur geldoak usteldu egiten direla.

ZER GARA BA MOZORRO IBILTARIAK BAINO?



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Arianne Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

Publizitatea: Ane Larreategi

Logotipoa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Diseinua eta maketazioa: KOH diseinu grafikoa

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ERREPORTAIA

Plaza Barriko arrapalak zer esan handia eman du azken asteotan. Irisgarritasunaren inguruan izan diren eztabaidei izaera orokorra ematearren, herriko egoerari begira jarri gara, oztopoak eta erraztasunak identifikatzeko.

Zorion agurrak



Julen Gonzalez

Martxuan 3an

4 urte

Zorionak pottolo!

Danel eta Oierren partez bereziki. Familiaren partez



Josune Saban

Otsailan 24an

8 urte

Zorionak guapa!

Familiaren partez



Julene Zabala

Otsailan 25ian

9 urte

Zorionak pottola!

Zelako haundi egin zaran!



Josune Egaña

Imanol Bermudez

Otsailan 11an 18 urte

Otsailan 29an 19 urte

Zorionak bikote eta ondo pasau!

Etzeko guztien partez

Gutunak

HAIZEA NUNDIK, GOBERNU BATZORDEA HANDIK

Aurreko larunbatean, Soraluzeke Ezker Abertzaleak hamarnaka lagunene parte hartzearekin, azken hilabeteetan egin dugun herriaren azterketa eta diagnosia aurkeztu genuen Polikiroldegiko erakusketa gelan. Bertan, herritarrek beren ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Herri batzar hau Udaletzeko pleno aretoan burutzeko asmoa genuen eta horrela egin genion gure eskaera Udalarari. Soraluze herriarekin zer ikusi zuzena duten gaiak jorratzeko normalizat jo genuen bertan egitea. Aurretik ere eskatuta dugu pleno aretoa hirigintza gaiak aztertzeke. Orduan, hasierako ezetza baiezkota bihurtu zen legedia eta gure eskubideak aipatutakoan. Harritzekoa da, zerbaitek harritzeko ahalmena ez badugu galdu behintzat, oraingotan legedi berdinean oinarrituz erantzuna kontrakoa jaso dugula. Pleno aretoaren erabilera ukatzeko jaso dugun idatzian inongo arrazoirik ez dagoenez pentsa-tzen hasiak gara ez ote den izango haizeen eragina. Zaila egiten zaigu bestela Gobernu Batzordearen norabide eza ulertzea. Ikertzen gaude dagoeneko zer haize mota den aproposena Udalean eskaerak egiteko, baina zoritxarrez oraindik ez dugu aurkitu erantzuna. Aukera gehien dutenak iparra eta hegoa dira; erabakitakoan informazioa eskuratuko duzue.

Amaitzeko, eskerrik asko oztupo eta traba guztien gainetik herri diagnosian edo zuen oportazioak egiten parte hartu duzuen guztiei. Aurrerantzean ere, zuekin kontaktzen dugu.

J.L Arizaga (zinegotzia)
Soraluzeke Ezker Abertzalea

ARATUSTIAK ETA EURIXA

Astiak pasatu dittue ume askok aratus-tien zain, disfrazak prestatu, makilatu... baina aratus-tietako martitzenian disfrazek ez zebezen ezer luzitu. Fetxa honetan normala izaten da eurixa ta hotza egittia eta udaletxiak hori be jakin biharko leuke. Hortaz, zer dala eta laga ziran kontziertua eta lehiaketia Plaza Zaharrian? Frontoia huts-hutsik zeguan ta kiroldegixa ume eta gurasoz beteta inungo musika eta animaziorik bare, ze musika eta giro guztixa plazan busti-busti eginda geratzera ausartu ziranentzat izan zan.

Badakigu tablaua eta ekipuak gertatziak lan haundixa eskatzen dabela, baina aratus-tiak otsailian dira eta ez ekainian. Horregaittik, hurrenguan espero dogu halako gauzeri lehenago heltzia eta zuzenian programaziñua frontoira edo kiroldegira pasatzia; holan danok gozatuko dogu gehixago jaixaz, ahal dala busti gabe.

Sabin pediatriak nahikua lan eukiko dau aste honetan umien katarruekin.

Itziar Agirre
eta beste guraso batzuk



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ikastaroak

• Aktoreak kamera aurrean

IPSO FACTO Arte Eszenikoen Ikastegela. Kamera Aurreko interpretazio ikastaroa. Otsailaren 26, 27 eta 28an eta Martxoaren 1era.

Epea: 2007-02-26 (Plaza mugatuak, 14 gehienez).

Tfnoa.: 943 618600 / 629412594

Emaila: ipsufactoatp@yahoo.es

Lana

• Ikastetxeetako janleketan begiraleak

Auzo Lagun. Donostia-Irungo ikastetxeetako janleketan lan egiteko begiraleen lan-poltsa. Beharrezkoa da euskaraz jakitea.

Epea: 2007-02-29

Tfnoa.: 943 794611 (Eider Iturbe)

Emaila: eiturbe@auzolagun.com

• Udaltzain bat Eibarren

Eibarko Udala. Eibarko Udalean udaltzain lanpostu bat betetzeko oposizioa-lehiaketa.

Epea: 2007-03-03

Tfnoa.: 943 708400

www.gipuzkoa.net

IRAGARKIAK

• Bitxiak, moda eta osagaiak saltzeko emakumeak behar dira. Ez da esperentziarik behar. Irabazi onak. Denbora libererako astia. 685787232 (Elgoibar)

• Alokairuko pisu baten bila nabil. Gehienez 300 eurokoa. 665239665

• Egurrezko kutxa salgai
Haritz egurrez egindako kutxa salgai. Euskal tailaduna.
Neurria: 90x60x1,95
Telf.: 618854667

• Soziedadeak eta tabernak garbitzeko emakumea prest. Astebarruan eta asteburuan.
Telf: 636555246

Jaiotakoak

• NORA SAIZ GUIJARRO

Zer irizten dotsazu?

Ligatzea komunikatzeko modu bat izanik, komunikazio bide berrietara egokitu da. Gero eta gehiago erabiltzen dira internet bidez ligatzeko txat-ak eta bestelako kontaktu orriak

Ligatuko zenduke Internet bittartez?



Nieves Morales
55 urte
Etxekoandria

Ez, iruditzen jata dana gizurra dala eta ez dot uste internetetik maittasunik sortu leikenik. Pertsonia ezagutu egin bihar da maittasuna sortzeko.



Miren Uribe
16 urte
Ikaslia

Aurrez aurre ligatzia polittagua da, baina ez jata gaizki pentzatzen. Messengerekin jende asko ezagutzen da baina nik lagunekin erabiltzen dot.



Luis Urizar
49 urte
Langilia

Ez, nere ustez grazia galitzen dau eta. Gauza polittak musura esan bihar jakuez neskeri. Interneten gehixena gizurra dala pentsatzen dot.




Arantza Mendikute
40 urte
Dendarixa

Ez jata gustatzen hola ligatzia. Horretarako helbidieri ez dotset kasorik egitten. Ez dot ezagutzen internet bittartez ezagutu dan parejarik.



Nekane Usobiaga
17 urte
Ikaslia

Ez, harreman bat aurrera eruateko biharrezkua dalako pertsonia ezagutzia eta horretarako internet bidez ezin da. Uste dot interneten gehixena gizurra dala.



Josean Arluziaga
40 urte
Metrologua

Ez. Ez dot helbiderik be ezagutzen. Periodikuetan irakurritta alkartu diran parejak badarela irakurri izan dot baina ez dittut ezagutzen.



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

 **etxera**
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

Autobusen gaineko aurreakordioarekin desadostasunak sortu dira

Debabarreneko 5 udalek (Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Soraluze) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreakordioa adostu dute autobus zerbitzu berrien gainean. Eibarrera ordu erdiro eta Mendarora goiz eta arratsalde (goizean bi eta arratsaldean beste bi) autobusak jartzea adostu dute. Eibartik azken autobusa 21:10ean izango litzateke. Defizitaren zati bat ordainduko lukete udalek. Soraluzeko Garraio

Publikoaren Aldeko Plataforma, ostera, ez dago ados. "Ez da onargarria ezta baliagarria ere Mendarora jarri duten zerbitzua. Goizeko autobus bat kentzea eta denetara 4 bakarrik izatea ez zaigu onargarria iruditzen". Plataformak idatzi bat kaleratu du bere iritzia azaltzeko. Soraluzeko PPko zinegotziak adierazi du Aldundiari dagokiola zerbitzu publiko hau ordaintzea, eta ez soraluzetarrei.

Elizako eraberritze lanak ikusteko bisitak asteburuan

Elizako zaharberitze lanak nola doazen ikusteko atea irekiko dituzte astebukaera honetan. "Eliza barruko argitasuna nabarmen handitu da eta egitura ere aldatu egin da", adierazi digu Elizako lanen Batzordeko Abel Olaizolak. Laister lurzoruan berogailua jartzen hasiko dira eta erretaula nagusia konpontzen. Horrez gain, Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie "finantziarako laguntza eman duten herritarrei, eta gainontzekoei parte hartzeko" eskatu nahi diete, "elizako titularra apezpikutza bada ere, eliza herritarrona delako". Zapatuan, 11:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 20:00etara eta domekan, 11:30etatik 14:00etara joan ahal izango da eliza bisitatzea.



Bai eskolak euskalduntzeari

Otsailaren 24rako eskualde mailako manifestazioa antolatu du Eskolak euskaldundu herri ekimenak. Eibarren izango da, 13:00etan, "Garaia da! Bai eskolak euskalduntzeari! Lemapean. Euskal Herri osoan eskolak %100 euskaldundu dezan, herritarren, eragileen eta erakundeen konpromisoa eskatzen dute.



Hitzaldiak nerabeen gurasoentzat

Institutuko KEIXETA guraso elkarteak bi hitzaldi antolatu ditu, bereziki nerabezaro garaian dau den seme-alabak dituztenentzat. Joxe Amiama psikologoa izango da hizlaria. Hitzaldiok martxoaren 7an eta 15ean izango dira, kiroldegiko erakusketa gelan, arratsaldeko 18:30etan.

Autodeterminazioa eta amnistiaren aldeko manifestazioa

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak deituta, manifestazioa izango da zapatuan, otsailaren 24ean, Bilbon, arratsaldeko 17:30etan. Autobusa ... irtengo da Zubi Nagusitik. Argazkian, prentsaurrekoan parte hartu zutenak.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Gurpildun aulkiaren gainetik
 bidea ez da berdin ikusten.
 Hala mugitzen direnentzat ez da
 hain erraza herri honetan
 batetik bestera ibiltzea.
 Herritar gehienek oharkabean
 igotako espaloi edo eskailera
 zenbait herritarrentzat gainditu
 ezineko mugak dira.
 Oztopo arkitektonikoak.
 Zenbait kale, eraikin eta
 zerbitzutara ez daukate iristeko
 biderik.
 Eman diezaiozun begirada bat
 herriari.



Oztopo arkitektonikoak, bizitzeko mugak

Soraluzeren orografia aldapatsuak, berez dakartza mugikortasun zailtasunak. Hala ere, gurpildun aulkian ibiltzen diren herritarren mugikortasuna oraindik gehiago murritzten dute. Nahikoa da koska handi bat edo eskailera batzuk iritsi nahi den lekura ezin iristeko. Soraluze, koska eta eskaileraz beteta dago.

Zerbitzuetara biderik ez

Herriko kale batzuetara iristeko eskailerak besterik ez daude, Kalongeko 1go eta 2. atariak edo Elizburuko etxeak, adibidez. Saltoki eta elkate askok eskaile-raren bat daukate sarreran. Ezin da bertara gurpildun aulkiz joan. Kale eta etxeez gain, zerbitzu publikoetara iristeko zailtasunak ugariak dira. Udaletxetik hasita, EPA eta Kzguna dauden lekua, Musika Eskola, Udaltzaingoa, Maisuen etxea, hilerria, ikaste-txeak, komun publikoak... herri-tarraren beharrak asetzeko ezin-bestekoak diren zerbitzuez gozatzeko aukerarik gabe gelditzen dira.

Gurpildun aulkiarekin espaloi gainera igotzeko, espaloiak jaitsiera bat behar du. Kale askotan ez dago jaitsierarik, beste batzuetan jaitsiera bai baina bira emateko lekurik ez dago, edo Ezozki Bideko espaloi berrian gertatzen den moduan, oso arriskutsua gerta daitekeen jaitsiera aldapatsua dago (zer esanik ez lurra bus-tita dagoenean). Zebra bideetan ere, batzuetan jaitsiera badago eta besteetan ez. Horrek egin beharreko bidea luzatzen die.

*"Udaltzaingora,
 ikastetxeetara, komun
 publikoetara... ez dago
 gurpildun aulkiarekin
 sartzerik"*

Plaza Barrixa

Plaza Barrixan egindako arrapalak hautsak harrotu ditu. Hirigintzako zinegotzi Iker

Aldazabalek adierazi zuenez, Izartu programaren baitan aurreikusitako lana izan da, plazaren irisgarritasuna bermatzeko. Hala ere, herritarren kontrako jarrerak arrapala bertan behera utzi eta irisgarritasunerako beste bide batzuk bilatzera bultzatu ditu.

Debabarrenako Gutxitu Fisikoen Elkarteak arrapala kentzearen aurkako iritzia azaldu dio Udalari gutun bidez. Elkarteko lehendakariak dioenez, "gurpildun aulkian dagoen pertsona minusbaliatu batek bere kabuz, inoren laguntzarik gabe, igo deza-keen leku bakarrenetakoa da". Tamalgarritzat jotzen du lege onartuta dagoen eta iadanik egin-da dagoen obra hau atzera botatzea.

Gurpildun aulkian dabilzan herritar batzuk, oster, ez dira iritzi berekoak. Garrantzia handiagoko beste oztopo batzuk badaudela diote eta Plaza Barrira heltzeko beste modu batzuk ere bai, lehendik dagoen arrapala txikia egoki ipiniz gero, adibidez.

**"2.005ean onartu zuen
Udalak
Irisgarritasun Plana,
lau urterako"**

Zer dio legeak?

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, 13. artikuluan ezartzen du herri administrazioek bermatu eta sustatu egin behar dutela hiri inguru, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio sistematarako irisgarritasuna. Horretarako, lau urteko programak egin behar dituzte, elementu horiek irisgarritasun baldintzetara pixkanaka egokitzeke. Soralezeko Udalak badu 2005 urtean onartutako plana. Bertan espaloiak desagertu, kaleko altzariak (eserleku, iturri...) aldatu, arrapalak eta igogailuak jarri eta eraikin publikoak moldatu behar direla dio. Horren harira zenbait lan egin badira ere, asko falta betetzeko.

Aparkalekuei dagokienez, legeak dio 40 lekutatik bat minusbaliatuentzat izan behar dela.

**"Legeak dio 40
aparkalekutik bat
minusbaliatuentzat izan
behar dela"**

IRISGARRITASUN ONA

- Kiroldegia
- Haur eskola
- Eliza (sarrera berria)
- Gaztetxea
- Merkatu plaza
- Gizarte bulegoa
- Herriko parkeak
- Zaharren egoitza

Soraluzen, ostera, ez da hori betetzen, hiruzpalau besterik ez daude eta (Santa Anan, Zubi Nagusian eta frontoian).

Proiektu berrietan, denetarik

Izartu II Planean egingo diren Plaza Zaharreko eta Zubi Nagusiko lanetan irisgarritasuna kontuan hartuko da. Beste ba-tzuetan ez, ordea.eta ez dauka inolako irisgarritasunik. Urkulutik Eibarrerako ur-trabasearen obrak direla-eta, aukera legoke espaloiak kentzeko (Santa Ana eta Kalebarrenen bezala). Udalak, ordea, ez dela horrelakorik egi-

**"Eibarrerako
ur-trabasearen obrak
ez dira aprobetxatuko
kale hoietan dauden
espaloiak kentzeko"**

tea aurrikusten adierazi du, "bi obra desberdin direlako". Kiroldegi gaineko proiektuak igogailua izango du, eraikina- ren kanpoaldetik, baina ez goraino, erdialdean geratzen den terrazaraino bakarrik. Orduan, goraino joateko, Kiroldegi barruko igogailua erabili beharko da, kirol-gunea zabalik edo itxita egoteak baldintzatuta.

IRISGARRITASUNIK EZ


- Udaletxea
- Udaltzaingoa
- EPA eta Kzguna
- Kapilla
- Istitutua
- Herri ikastetxea
- Frontoia
- Musika Eskola
- Hilerrria
- Komun publikoak
- Jubilatua
- Maisuen Etxea (Pil-pilean, Bertso Eskola, EHE. Lehen AEK eta eskulan tallerrak ere bai)



Hilerriko sarrerako eskailerak



EPA eta Kzguna



Udaletxeko eskailera luzeak



Musika Eskolako sarrera

Itxaropenako txapelketa gastronomikoa

Otsailaren 16an patatak errioxar erara prestatzeko lehiaketa ospatu zuten jubilatuek. Merkatu plazan gertatu zituzten 12 bikotek patatak.

1go postuan Marcelo Goenetxea eta Patxi Arana geratu ziren eta bigarrenen, Teogenes Ruiz eta Angel Palacin.



Soraluzetarrak Azpeitiko danborradan

Soraluzeko danborrada batzordeko kideek Azpeitiko danborradaren 50. urteurreneko ekitaldian parte hartu zuten. Batzordeak ohar bat helarazi nahi du: danborradako arroparen bat etxean duenak utzi dezala Iratxo goxodendan lehen bait lehen.



Debajazzeko finala Elgetan



Martxoko lehenengo astebukeraren izango da Gaztelupeko Hotsakek antolatzen duen 2. jazz talde berrien lehiaketako finala. Martxoaren 2an, barixakua, Vila5 eta Paco Weht Quartet talde kataluniarrek joko dute eta martxoaren 3an, zapatua, Última hora eta organik's talde euskaldunen txanda izango da. Kontzertuak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira gaueko 22:30etan.

Ipuin kontaketa-ko ikastaroa

Ipuinak nola kontatzen diren ikasteko ikastaroa antolatu du Udalak, gurasoei zuzenduta. Pello Añorga, haur eta gazte literaturan ezaguna, izango da ikastaroa emango duena. Bi orduko hiru saio izango dira, otsailaren 22an, 27an eta martxoaren 1ean.

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE

Hortz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

MENDATA taberna

Pizzak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazuelitak

Bokadilloak ● ● Razioak

ostirala **08:30 - 22:30**

larunbata **08:30 - 22:30**

lgandea **08:30 - 22:00**

Tel.: 943 75 13 87

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Resu Gallastegi

“Neretzat bidai danak dira polittak”

Etxeko egongelako goxotasunean aurkitu dugu Resu, baina ez da geldi egotekoa; etxean laboreak edo irakurtzea du gustoko. Hala ere, ahal duen guztietan prestatzen ditu mailetak norabait joateko, lagun eta senideak bisitatzen edo jende eta toki berriak ezagutzera. Itxuraz amona, izpirituz benetan gaztea.

Bidaiatzia atsegin dozu. Nun egon zara azkenekoz?

Irailian Frantzia erdialdian egon nintzan 10 egunez. Gerrako umia izan nintzan eta 16 urtekin Frantziako familixa hartara eraman ninduen. 6-7 hilabete pasatu nittuan eurekin.

Gerran zure familixian atzetik ibili ziran?

Gu ez ginan bando batekuak ez bestekuak, baina nere aita ordekoa errusiara zanez, gure atzetik gelditu bare ibili ziran. Erbestetik Donostiara etorri nahi genduan, baina gure bila zebizenez, Soraluze eta etorri ginan. Gero Katalunyarara ihes egin genduan, baina “los buenos” etortzian muga pasatu eta Britainiara juan ginan.

Txikitatik bidaiatu dozu orduan?

Beti gustatu izan jata, baina lehen dirurik ez, eta oin ezin dot zaharra naizelako! Bidaireren bat aukera-tzekotan New Yorkera juango nintzake. Lehen be egonda nago, kaliak ikusgarriak dira! Neretzat bidai danak dira polittak.

Egindako bidairik berezixena?

Turkiakuz oso oroitzen ona daukat. Capadocia barrura sartu eta aireportu siniestro batian egon ginan, dana berde iluna zan, bildu-

rra be emoten zeban!

Praga, Londres, Paris, Erroma,... oso ikusgarriak dira... hainbeste toki! Ozeanian ez beste kontinente guztietan egon naiz. Zelanda Berrira juan biharko, baina bidairako laguna falta!



Zeinek juaten zara?

Ingalaterra, Turkia eta New Yorken nire loiba Zigorrekin juan naiz. Beste asko ahiztiakin. Baina beti elkartzen zara jende barrixakin.

Bidaixak zer aportatzen dotsue?

Dana. Ikusi eta bizitako dana zu-


retzat da. Juan aurretik tokixari buruzko liburuak irakurtzen dittut, mapak begiratu... Bidaixei buruzko liburu pilia dauzkat!

Baina bidaixenak ez dira dittuzun liburu bakarrak, ezta?

Hainbeste liburu dauzkat. Sara-magorenak eta polizia-zkuak atsegin dittut. 3 urtekin irakurtzen hasi etahamabikin hartu neban lehenengo eleberrixa, Victor Hugon Misera-bleak eta hainbeste gustatu jatanez, amaitutakuan berriro irakurtziari ekin notsan! Orditik, 82 urtian ez naiz geratu.

Gomendiorik?

Irakurri liburuak, gaurko gaztiak oso gutxi irakurtzen dabe eta liburuak unibertsi-tatia dira. Animatu bidaia-tzera, munduko gauzarik polittena da eta.



Londresko kabina batean

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434



HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

ARMENDIA
JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Binakako 4 1/2ko txapelketa azkarra antolatu du pilota taldeak

Soraluzeko pilota taldeak lau t'erdiko txapelketa azkarra antolatu du otsaila eta martxorako. Partiduak Kiroldegian jokatuko dira, astelehen eta asteazkenetan 18:45etatik 19:45etara eta zapatu goizetan. 15 urtetik gorako edozeinek parte har dezake. Otsailaren 27a baino lehen eman behar da izena Arrano, Gila eta Gaztelupe tabernetan, 6 euro or-

dainduta. Zozketa otsailaren 28an egingo da, 20:00etan Gaztetxean. Korrikaren aldeko ekitaldian, martxoaren 23an, jokatuko da finala. Frontoira pilotan egitera jende gutxi agertzen dela, eta hartuta dauden orduei probetxua atera nahi diotela adierazi digute pilota taldeko arduradunek (Joseba, Andoni, Haritz eta Koldo).



Soraluze saria domekan

X.Soraluze Saria domeka honetan jokatuko da. Soraluzeko Kirol Elkartek antolatu du 23 urtetik beherakoentzat. Goizeko 9:45etan hasiko da herritik, eta Osintxu, Bergara, Arrasate, Elgeta, Maltzaga eta

Elgoibartik pasatuko da hainbat aldiz, guztira 111km. betetzeko. Barriantetik 4 bider igaroko dira: 9:54an, 10:18an, 11:09an eta 11:33an. Helmugaratzea 12:30 inguruan espero da.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Otsailaren 10etik 23ra

• Chafee – Laskurain	22
• Capellan – Barriola	9
• Laskurain – Titin III	22
• Capellan – Barriola	20
• Etxeto - Puyets	12
• Erroizenea – Jauregi	22
• Atxotegi – Loiola	22
• Amundarain – Eizagirre	9
• Atxotegi – Loiola	22
• Dominguez – Catalina	9

FUTBOLA

- Sora 2 – Landetxa 1 (Reg.)
- Tolosa 5 – Sora 0 (jub.)

AGENDA

FUTBOLA

Zapatuan, 16:00etan, Ezozin

- Sora - Trintxerpe - Azkuene (Reg.)

Domekan, 16:00etan, Ezozin

- Sora - Antoniano (jub. igoera fasean)

Zapatuan, 16:30etan, Donostian

- Ikasberri - Sora (kad. kopa)

ESKU PILOTA

Barixakuan, 22:00etan, Miranda de Ebron (ETB1)

- Irujo – Nalda III
- Titin III – Laskurain

Barixakuan, 21:15etan, Elgoibarren

- Atxotegi – Loiola
- Lizaso - Txapartegi

MENDIA

Domeka 25, Kalamua 768m. (Eibar)

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Etxabe Harategia



Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375



Diseinua eta Sormera

Polígono Amillage, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

MABE ILEAPAINDEGIA



ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Inauteriak argazkitan



Hamairuko dozena arrautziakin, pila pila patata tortilla!



Afrikatik etorrita kakaua banatzera



Habatanik zuzenian Kubako doinurik goxuenak



Soraluzeko Travoltak eta Oliviak



Michael Jacksonen dantzariak



Plazentziako artistak mokolo danak dantzan ipinitzen



Iñauterietako elegantziarik finena eta sexyena!



Mundu zabaletik kolore guztietako pertsonajiak

Argazki zaharra



Iturria: Nerea Orbea

1.982ko iñauterixak

Oin dala 25 urte etaratako argazkixada, bakoitza bere mozurruakin.

Ezkerretik eskumara, goiko hilaretan: Mikel Arrillaga, Mireia Lete, Ainhoa Mendia, Nerea Orbea, Ainhoa Alberdi, M^a Pili Arzuaga, Esther Garitano, Jasone Osa, Rosarito Inda.

3. ilaran: Ezozi Alberdi, Nerea Areitio-aurtena, Nerea Amaia Retolaza, Xabi Alberdi eta Miguel Bedaio.

2. ilaran: Iratxe Benito, Xabier Alberdi, Ane Ansola, Roberto Castañeda.

1.go ilaran: Amaia Bedaio, Iñigo Bolunburu, Pedro Laskurain, Asier Elizburu, Aitor Fernandez.

Lehiaketa

Kalegoen...



**Aurreko
aleko
erantzuna**

Santa Ana kaliari esaten jakon. Kalebarren eta Kalegoen zian orduan. Mende hasierara arte mantendu zeban izen hori. Santa Ana monastegiraino heltzen zan kalia, eta horretxegaittik, edo jaixak oso herrikoiak izatiaz, edo beste arrazoiren bategaittik, berezko izenan lekua hartu zeban Santa Anak.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Ze urtetan
kendu zeben
trena? → 1.960
→ 1.990
→ 1.974

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 • 646 522 659
E-maila: ldnieves@mgs.es



SARIA →

Norberarendako
aseguru bat

**AURREKO ALEKO
IRABAZLEA**
Domentx Uzin

SARIA
Fisioterapia saio bat
Gogortuz zentroan



URTEURRENA

2006ko otsailaren 27an hil zen Soraluzen
72 urte zituela

ELENA LARRAÑAGA ASKASIBAR

Goian bego





UGARAXO

2007ko otsaila

Haizeak ekarritako iñauteriak!



1. GO MAILAKOAK



2. MAILAKOAK



3. MAILAKOAK

Haizeak ekarritako iñauteriak!

Eguzkia goxo, baina haizeak ia eraman zituen gure mozorroak. Umore onean pasatu genuen ostiral arratsaldea, marinel, surflari, arrain eta barraskiloek.



4. MAILAKOAK



5. MAILAKOAK



6. MAILAKOAK



SAN BLASA PROBATU NAHI?

Otsailaren 3an, protagonista nagusia SAN BLAS opila izan da. Jatea denoi gustatzen zaigu, baina ba al dakizue nola egiten den? Ba, segi itzazue ondorengo pausoak eta dastatu opil zoragarriak!



San Blas

OSAGAIK

600g arautza
500 gr. azukre
100 gr. gurina
100 gr. manteka

Royal sobre leat
Kilo leat irin
Amisa

EGITEKO MODUA

Lehenengo irumarkin sumenditza egiten da eta erdian arautzak beto.


Gero royala, gurina, manteka, amisa eta azukrea gehitzen zaio.

Ondoren sartu eskuak helduak gabe eta masa osatu.

Azkenik masa eginda, dagonean zatitza egin, zapaldu forma emanaz, puntatzen atera eta labera!! Bitartean zurungo eginda dugu. Opilak labetik atera ahala kontu handiz igurtzi zuzia gainean. Hartzen utzi... eta jateko prest!!!

GAINEKO ZURIA EGITEKO

2 zurungo
250-300 gr. azukre glas
limoi trontza leatuak.



HIZKI

ZOPA

MAMOXARROA



Inauterietako

pertsonaiak

ATORRA



ZAMALTZAIN



M	E	T	K	Z	J	G	O	X	E	O	V	Z
A	H	O	E	I	A	A	D	A	D	D	A	A
M	G	J	X	R	O	E	G	E	G	M	R	K
O	H	D	T	I	H	X	E	G	A	I	G	U
X	T	O	H	P	J	T	J	L	D	E	O	Z
A	X	J	G	O	A	H	T	G	U	L	J	A
R	J	E	T	T	Z	A	A	O	O	O	H	
R	H	O	H	I	A	E	P	T	J	T	A	A
O	E	J	X	I	I	X	A	O	H	X	L	R
A	H	A	N	G	X	G	O	R	A	I	D	R
I	T	X	E	O	G	A	X	R	G	N	V	A
X	U	K	T	A	A	S	G	A	V	M	N	R
H	M	A	R	K	I	T	O	S	X	I	A	E

JOALDUNA



MIEL OTXIN



ZIRIPOT



MARKITOS



ZAKUZAHARRA

